

Helena Goñirentzako hitzen zerrenda bat.

Hitz trukagarriak, edo ez.

Marti Manen

Ziurgabetasuna.

Inorena ez den lurrean egotea, beti prozesuan, beti jazarri beharreko ezjakite baterantz. Gauzak zehaztugabeak izan daitezela uztea, ihes egin dezatela uztea eta geratzen dena posibilitatea izan dadila uztea, irteera izan dadila, jarduereremu izan dadila uztea. Irudia, ikusten dena baino askoz gehiago ere izan dadila uztea, lehenagoko denbora guztia eta etorkizuneko bide posibleak izan daitezela ere uztea. Estatikoa denaz harago pentsatzea, erantzuna zein aukeratan ez dakigun eta horietan pentsatzea. Egoera horietarantz joatea, testuinguruak aintzat hartzea euren mugetan barna ikertzeko. Muga izatea.

Egoerak.

Helena Goñik lantzen dituen egoeretan, beste posibilitate bat bihurtzen da narratiba. Kameraren kliskak lehena eta geroa dauzka, gurutzatutako hainbat begirada dago, konfiantza dago, komunitatea dago eta erorketa askea dago. Une batzuk manifestu bilakatzen dira, keinuak daude eta performatibitatea dago, bai eta itxaronaldirako, pausarako, kontrolerako desira bat ere. Posible balitz.

Arrastoa.

Batzuetan garrantzitsua da arrasto batzuetara itzultzea. Memorian geratu ziren arrastoak. Edo gera zitezela saiatu ginenak eta, joan ez daitezzen, behin eta berriro errepikatzen ditugunak. Karga emozionaleko uneak, pausa-uneak, aurreko uneak. Tragedia posible baterako pizgarri diren uneak. Bestelako argi bat duten uneak. Helena Goñiren tonu batzuk ikustea Nan Goldin-engana joateko, Catherine Opie-rengana joateko, Annika von Hauswolff-engana joateko, Wolfgang Tillmans-engana joateko. Erreferentzia-esparrua aintzat hartzea arriskuan, erorketan, hauskortasunez beterik dagoen keinu sendo batean.

Begirada I.

Behind blue eyes // tell me how close we are to a riot-en zuri-beltzezko irudi bat. Ale eta Ana. Bi aurpegi, batek kamerari begiratzen dio eta besteak gorantz begiratzen du. Azal-ukipena. Berriro ere, konfiantza. Jaka bat, gorputz estaltze bat eta zaintze bat, dena aldatzearen keinu bat eta, baita ere, gertatzen ari denari buruzko ziurtasun bat. Aldi berean, begirada bat airera, aho bat tentsioz uzurtua. Eta indarkeria eta tentsioa zer diren –hori ere bai– ulertzen duen askatasun-gradua aintzat hartuz sortutako konfiantza.

Begirada II.

Tren batean, Helenak arautik ihes egiten duen norbait behatzen du. Norbait, bestelakoa den jarrera bat duena. Haren desira beste bat da, munduarekin harremanetan jartzeko duen modua -munduarekin izan behar badu- segundo bakoitzean hasten da. Aurrez ezarritako irizpide bat ez baizik eta oinarri emozionaleko sistema bat edukitzea. Pertsona horrengana hurbiltzea. Geldiro. Munduak zeharkatzen direneko konfiantza-esparrua bilatuz. Konexioa lortu. Liluramendua. Begiak itxi ditzala. Begiak zabal ditzala. Haren begiek begira ez diezagutela; ez dio ardurarik guri begiratzea, ez dira geureak, eta ez dute hala izan behar. Han ohiko analisitik urrun dagoen ahalmen bat egon dadila, koloreek eztanda egin dezatela usainek bezala, ukimena estremoia izan dadila, soinu batek urrutira, oso urrutira eraman gaitzala.

Nekea.

Une batzuetan nekeak gauza asko gerta daitezela uzten du, oztoporik egon ez dadila eta bat-batean erabateko konfiantza ager dadila uzten du. Kliska egiteko uneak. Uneak kameran, kamerarekin, gertatzen denaz ohartzen gareneko segundo pare hori berez irauten duten uneak. Ikusi egiten dut konexio hori, nekearen eta konfiantzaren artekoa, esna egotearen eta jarraitzearen, egunsentiaren eta askoz gehiagorik ez bilatzearen artekoa. Uste dut -baita ere- neketik abiatuta aska gaitezkeela, inondik izatekotan. Batzuetan gehiago kontzentratzen naiz oztopoetan, oztopo horiek keinu aktibo batez desaktibatze moduan, eskemak hausteko paradoxa bat bilatzeko moduan. Helena lagun da, eta erne dago, une hori heltzen denerako, gauzak begi bistakoak dira.

Inguruan.

Helena Goñik nola begiratzen duen, horretan oso konplexua den zerbait dago. Lainoa dago eta likatasuna dago, minaren eta edertasunaren posibilitatea dago, poesiara hurbiltzen den egunerokotasun bat dago. Leku batean parte hartzen den aldi berean aldibaterakotasunaz eta iheskortasunaz ohartzearen hori. Helena Surrounded-en, grisez eta kontrastez osaturiko hiri batera, Londresera, alegia, hurbiltzea; gaueko kolore gorritz jantzitako hiri bat, iragana eta aurretiazko identitatea eskura jartzen duten pisuz jantzia, auskalo noiz eta nola amaitzeko gaueko ihesbideak dituen hiria. Oraindik pausa-uneak eta desira erromantiko batean sortutako naturatik hurbileko konposizioak daudeneko hiria, dena zalantzan jartzeko posibilitateak daudenekoa.

Kontrola.

Michel Foucault eta Chris Kraus. Gorputza gogoan izatea, mugak gogoan izatea, mugak aintzat hartzeko beharrezana gogoan izatea. Edukia jakiteko modua mugak direlako ideia. Baina mugak baita ere eztanda gisa, ihes gisa, alde egiteko sistema gisa. Galdera da

nola alde egin ahal den, segurtasun-hitz bat edukita. Chris Kraus L.A.n, BDSMren munduan aspertasunik sartzen ari dela, beste bizimodu bat deskubritzeko posibilitatea delakoan. Foucault klubetan, Kalifornian ere bai. Eta objektu batzuk jarraibide eta horma bihurtzen dituen estetika bat, gorputzaren beraren elementu ere bihurtzen dituen.

Begirada III.

Olatz, markotik kanpoko begirada nekatua. Alkandora bakeroaren botoiak lotzen ari da neska, galtzerdi zuriak eta mugimendua. Begirada bete-betean finkatuta, baina ez dakigun non. Tentsioa dago, eta eztanda-posibilitate bat dago. Segurtasun bat ere dago, baita indar estali bat, zeinetatik dena eratorri ahal den.

Deskubritzea.

Roland Barthesen bigarren une horren posibilitatea eta bere iraupena edo heriotzarekiko konexioa. Eta maitasunarekiko, Barthesek istoriotik kanpo utzi eta euforia betean idazten zaila den zerbait dela erakusten duen gauza baten maitasun horrekikoa. Bigarren une batean deskubritzea lehenengo une izatera igaro ahal dela. Itzultzea, bueltatzea. Agerian jartzea. Argazkigintzaren hiztegi osoa bigarren posibilitatez kargatuta dago.

Izpi berdea.

Aldaketa-uneei buruzko liluramendu bat dago, etapak gainditzearen inguruko tradizio bat dago. Sua eta gaua. Egunsentia..

Norbere burua deskubritzea.

Helena Goñiren argazkigintza-prozesuan nabarmena da norbere burua deskubritzea, norbere buruaz galde egitea, nolabaiteko elkarrizketa etengabe bat dago. Ekintzaren bidez pentsatzea, kliska horretan pentsatzen ari zena gogoratzea, kliska egitea geroago pentsatu ahal izateko. Egoerak iraun dezala eta itzuli ahal izan dadila, dena presente egon ahal

izan dadila, koloreak galdu ez daitezela, intentsitatea gera dadila, eraikitako begirada hori bere burua eraikitzen edo suntsitzen ari den beste batena izan dadila. Eraikitzea eta suntsitzea, prozesu etengabe gisa, norbere burua deskubritzearen beharra duena sentitzea lortzeko, izateko, existitzeko.

Definizioa.

Jauzia, Kathy Acker-en idazketara. Ezin hobeto definitutako deskontrola. Ez da erraza erortzea eta erorketa hori azaltzea, ez da erraza idazketa bera erorketa izatea, idazketa bera pertsona izatea.

Antsietatea.

Begirada fotografikoa une bati eskainitako erabateko arreta da, baina une horretatik bertatik hartutako distantzia ere da. Parte hartzea eta parte ez hartzea. Begiratzea, argazki-kamera baten gisako pentsamendutik, makina baten pentsamendutik, ezin hobeto aintzat hartu den lengoaia baten, lengoaia izate hutsarengatik banantze emozional posible dakarren lengoaia baten eraikuntza. Baliteke iruditik abiatuta intentsitatez bizi izateak blokeoa ekartzea, ikusten den horretan parte hartzearen aurkako blokeoa.

Argazkigintza.

Une bat heldu zen, zeinean argazkigintzak argazkigintza izateari utzi zion. Irudia eta artea, testuinguru gisa, zeinean hizkuntza-erakina auzitan geratu ahal den. Irudiak denborekin, irudiak testuinguruetarako, instalazio bilakatzen diren irudiak, objektu izatera igarotzen diren begiradak. Bainu galdu bat, berriro egiten dena bestek ikusi eta gogora dezaten.

Kontsumoa.

Helenak irudiak ekoizten ditu, kontsumitzen ditugun irudiak. Baina aldaketa bat dago, aldaketa bat egon zen hainbat begiradatan, aldaketa horren bidetik irudi horiek atsegin izateari utzi zioten, eta karga subjektibo bihurtu ziren. Begirada fotografikoan dagoen karga subjektiboa, harmenetik konpartitzen dena, nola edo hala lehenengo begirada fotografiko horretan dagoen harmena. Argazkiak norbere buruarentzat eta gainerakoentzat.

Bowie.

David Bowieren begiak, eta betiere handitutako begi-ninia. Argiaren edo iluntasunaren aurrean izaten diren erreakzioak, konpasetik kanpokoak. Helena Goñi Calgaryn, 2017. Autorretratu kasuala, atzean motxila dagoela. Ezkerreko begi-ninia, eskuinekoa baino dilatatuago.

Abiadura.

Irudien ugalketa eta hautaketa. Helena Goñirekin irudien ugalketa erabatekoan parte hartzen dugu, Ballard-engandik Baudrillard-engana mugitzen den eta geroago Karen Barad-engan inplosioa egoten duen mundu horretan. Baina poetika, ez dezagun poetika ahaztu. Ezta sentsualtasuna ere, paradoxikoa izan arren irudian dagoen ukimenezko gaitasun hori. Aparteko segundo horiek, laztan hori, erretinan geratzen den une hori.

